

2016ko hasieran Euskal AEn ari ziren enpresen %31,7 bost urte zahar zen edo gutxiago

Alten %91,8 eta baje %90,8 hiru langile baino gutxiagokoetan, geruza dinamikoena

Euskal AEn 2016ko hasieran ari ziren enpresen %31,7 bost urte zahar zen edo gutxiago, 158.436 enpresa guztira, Eustaten datuen arabera. Enpresok 175.674 establezimendutan ari ziren (lantegiak, dendak, bulegoak...); %14,1 Araban; %51,8 Bizkaian; %34,1 Gipuzkoan.

Aurreko urtearen aldean, Higiezin jardueretan establezimenduak %4,1 gehiago dira; Zerbitzuen beste jardueretan %2,2; Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan (%2,0); Informazio eta komunikazioetan %0,8. Establezimendu gutxiago: Industrian (%-1,8); Finantza eta aseguru jardueretan (%-1,7); Lehen sektorean (%-1,6); Eraikuntzan (%-1,5). Guztirakoan, %0,4 establezimendu gutxiago.

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2016/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	175.674	-0,4	24.759	-0,1	91.008	-0,4	59.907	-0,6
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	5.907	-1,6	1.949	7,7	1.917	-4,9	2.041	-6,3
Industria, energia eta saneamendua	11.958	-1,8	2.033	-1,9	5.185	-1,9	4.740	-1,7
Eraikuntza	20.629	-1,5	2.615	-3,1	10.657	-1,2	7.357	-1,4
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	66.662	-1,3	8.866	-0,8	35.755	-1,1	22.041	-1,7
Informazioa eta komunikazioak	3.316	0,8	399	5,3	1.876	-0,4	1.041	1,4
Finantza jarduerak eta aseguru etakoak	4.873	-1,7	698	0,9	2.595	-2,0	1.580	-2,1
Onibar-jarduerak	3.015	4,1	213	-1,4	1.766	3,5	1.036	6,6
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	28.406	0,3	3.799	-1,5	15.092	0,2	9.515	1,3
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	17.707	2,0	2.369	1,8	9.433	1,9	5.905	2,2
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	13.201	2,2	1.818	0,9	6.732	3,2	4.651	1,4

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoaren direktorioa

Establezimendurik gehien, Merkataritza, garraio eta ostalaritzak, %37,9; Jarduera profesional eta lagungarriak %16,2; Eraikuntzak %11,7.

Establezimenduen tamainaren arabera, 2015ean, aurreko urtean bezalatsu. Apenas 2.305 establezimenduk -guztirakoaren %1,3k- dauzkaten 50 enplegu edo gehiago; hauen enplegua guztirakoaren %39,5 da. 131.253 establezimendu, ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %18,9 bakarrik hartzen dute.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazioa handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria, energia eta saneamendua da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 14,4 enplegu da. Araban 18,2; Gipuzkoan 14,4 eta Bizkaian 12,9.

ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri, unitate juridiko) %97,6k Euskal AEn dute egoitza; 3.749k estatuen gainerakoan. 80.118 enpresak, erdia pasatxok, Bizkaian dute egoitza; 53.225ek (%33,6k) Gipuzkoan; 21.344k (%13,5ek) Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,4 okupatu enpresako, 4,9 establezimenduko. Nortasun juridikoan, bada alderik. Nortasun juridikoaren titularra Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,2 eta 9,1 pertsona dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Euskal enpresetan baditugu gazte samarrak. Euskal AEn ari direnen %31,7 bost urte zahar da edo gutxiago; bi urte edo gutxiagokoak, %16,4.

Establezimendu errotaziorik handienak: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (alta guztien %29,6, baje %33,8); Jarduera profesional eta lagungarriak (alta guztien %18,5 eta baje guztien %17,2); Eraikuntza (alta guztien %17,3, baje guztien %18,3); guztira 710 establezimendu gutxiago 2015ean zehar.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2016/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	16.045	16.755	Guztira	16.045	16.755
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	835	931	Pertsona fisikoa	10.869	11.345
Industria, energia eta saneamendua	713	883	Akziokako elkarteak	297	696
Eraikuntza	2.774	3.066	Elkarte mugatua	3.428	3.501
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.757	5.666	Bestelako elkarteak	1.372	1.138
Informazioa eta komunikazioak	452	412	Bestelako forma juridikoak	79	75
Finantza jarduerak eta aseguru-entitateak	359	447			
Onibar-jarduerak	385	293			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.962	2.878			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.560	1.231			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.248	948			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Pertsona Fisikoaren nortasun juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen dena azpimarratu behar: alden eta baje %67,7.

Pertsona fisiko diren establezimenduetan dugu enplegatuen alden %40,1 eta baje %40,0. Sozietate mugatuetan alden %34,1 eta baje %31,1.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %91,8 eta baja guztien %90,8 hartu ditu.

Establezimendu handien (50 langile edo gehiagokoen) geruzan alden %0,2 eta baje %0,3, besterik ez. Aldiz, enplegatuen alta guztien %16,9 eta baje %13,1.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak](#)

[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko datu-bankua](#)